La oferta de servicio de Euskotren en el litoral mejoraría notablemente si la línea del litoral fuera Deba-San Sebastián, en lugar de Zumaia-San Sebastián. Esto no exigiría hacer ninguna obra, y se conseguiría dar servicio a dos estaciones más.

Errugbiko TOP 14 finalerdietan ezarritako tren-maiztasunak askoz ere erakargarriagoak eta eraginkorragoak izan dira. Eta ez dago arazo tekniko handirik modu iraunkorrean ezartzeko. Maiztasun hobe horiek modu iraunkorrean ezarriko balira, gainera, AHTaren obren ondorioz Renfek Donostia eta Irun artean ezarritako zerbitzu-murrizketak neurri batean konpentsatuko lirateke.

Las frecuencias ferroviarias establecidas para las semifinales del TOP 14 de Rugby fueron mucho más útiles y eficaces. Y no hay grandes problemas técnicos para la implantación permanente de dichas frecuencias. La implantación de estas mayores frecuencias con carácter permanente compensaría, además, en parte, las restricciones de servicios impuestas por Renfe entre San Sebastián e Irún como consecuencia de las obras del TAV.

Zalantzarik gabe, milaka donostiar lirateke hobekuntza hauen guztien onuradun.

Sin duda, miles de donostiarras se beneficiarían de todas estas mejoras.

Hori guztia dela eta, mozio arrunt hau aurkezten dugu.

Por todo, ello presentamos esta moción ordinaria.

MOZIO ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Gipuzkoako zabalera metrikoko trenbide-sarea hobetzeko, topoaren lurpeko igarobidea eta horrek eskainiko duen zerbitzuaren ustiapen-ezaugarriak erreferentziatzat hartuta.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a mejorar la red ferroviaria de ancho métrico de Gipuzkoa, tomando como referencia la pasante soterrada del Topo y las características de explotación del servicio que esta ofrecerá.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari 2024-2028 aldiko hurrengo aurrekontuetan material mugikorra erosteko (5 unitate berri) eta honako azpiegitura hauek egiteko behar diren aurrekontu-partidak izan ditzala:

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que en los próximos presupuestos del período 2024-2028 disponga las partidas presupuestarias necesarias para la compra del material móvil (5 unidades nuevas) y ejecución de las siguientes infraestructuras:

- Altza-Galtzaraborda
- Aginagako mozketa
- Loiolako Erriberako trukagailua
- Donostiako Lurpeko Pasabidea
- Zumaiako kotxetegiak
- Pasaiako portura metro bateko zabalerako trenbidea sartzea

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio bila dezala bere zerbitzuak ahalik eta eraginkorrenak izateko modua, eta, horretarako, indartu dezala Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko koordinazioa, Euskotrenek ematen dituen zerbitzuen (trena eta autobusa) arteko osagarritasuna hobetzeko, puntako uneetan maiztasunak hobetzeko helburuarekin”. ========================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeita hiruko urriaren hogeita hamaikan.

- Altza-Galtzaraborda
- Corta de Aginaga
- Intercambiador de Riberas de Loiola
- Pasante Soterrada de San Sebastián
- Cocheras de Zumaia
- Penetración del ancho métrico al Puerto de Pasaia
-

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco para que busque la mayor eficiencia de sus servicios y a que, para ello, refuerce la coordinación con la Diputación Foral de Gipuzkoa para mejorar la complementariedad entre los distintos servicios que presta Euskotren (tren y autobús), con la finalidad de mejorar las frecuencias en momentos pico”. ===================================

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a treinta y uno de octubre de dos mil veintitrés.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”

--------------

## II.2

## KONTROL MOZIOAK

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Isuri Gutxiko Eremuari buruzkoa.**

## II.2

## MOCIONES DE CONTROL

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la Zona de Bajas Emisiones de San Sebastián.**

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko urriaren 16an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

"Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción deriva de la interpelación presentada el pasado 16 de octubre de 2023 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren inguruko 2021eko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 14. artikuluaren arabera, 50.000 biztanletik gorako udalerriek eta uharteek hiri-mugikortasun jasangarriko planak onartuko dituzte 2023a baino lehen.

Según establece el artículo 14 de la Ley 7/2021, de 20 de mayo, de cambio climático y transición energética, los municipios e islas de más de 50.000 habitantes deberán aprobar planes de movilidad urbana sostenible antes de 2023.

Beraz, legearen arabera, 50.000 biztanletik gorako udalerriek dagoeneko onartuak behar lituzkete hiri-mugikortasun jasangarri planak non emisio txikiko eremuak zehazten diren. Izan ere, dagoeneko badira hainbat erkidegotan eremu horiek zehaztu dituzten hiriak; besteak beste, Katalunian, Andaluzian, Madrilen, Galizian edo Valentzian. Alabaina, Euskal Autonomia Erkidegoko hirietan atzerapena nabarmena da, 50.000 biztanle baino gehiago dituzten sei udalerrietatik bakar batek ere ez baitu oraindik horrelako eremurik zehaztu, legea urratuta.

Por lo tanto, según dicha ley, los municipios de más de 50.000 habitantes deberían tener ya aprobados planes de movilidad urbana sostenible en los que se definan zonas de bajas emisiones. De hecho, existen ciudades que ya han definido estas zonas, en diferentes comunidades como por ejemplo Cataluña, Andalucía, Madrid, Galicia o Valencia. Sin embargo, en las ciudades de la Comunidad Autónoma Vasca, el retraso es notable, ya que, de los seis municipios de más de 50.000 habitantes, ninguno ha definido estas zonas de bajas emisiones, incumpliendo así la ley vigente.

Donostiako Udalak uztailean esleitu zituen lehen kontratuak, hirian Isuri Gutxiko Eremua ezarri, abian jarri, operatu eta mantentzeko. Kontratazioaren bidez perimetroa eta eredua zehaztuko dituen laguntza teknikoak ezarri nahi dira.

El Ayuntamiento de San Sebastián adjudicó en el pasado mes de julio los primeros contratos para la implantación, puesta en marcha, operación y mantenimiento de la zona de bajas emisiones en la ciudad. Mediante dicha contratación, se pretenden establecer las ayudas técnicas que demarquen el perímetro y definan el modelo de la zona de bajas emisiones.

Badirudi, Udal Gobernuak eredu misto bat ezarri

Al parecer, el Gobierno Municipal pretende

nahi duela Isuri Gutxiko Eremuan: baimenduen irizpidearen eta emisioen araberako etiketen bidez.

implantar un modelo mixto en la zona de bajas emisiones, donde pretende aplicar dos criterios: por un lado, el de los vehículos autorizados de personas residentes y, por otro, mediante etiquetas que determinen las emisiones de cada vehículo.

Eremua zehaztua ez egon arren, badirudi Bulebarraren, Urumearen, Urbieta kalearen eta Araba parkearen artean izango dela.

Aunque la zona de bajas emisiones no se encuentre todavía demarcada, parece que se situará entre el Boulevard, el Urumea, la calle Urbieta y el parque de Araba.

Horiek horrela, urriaren 8an prentsa bidez jakin genuen Donostiako Udal Gobernuak Isuri Gutxiko Eremua ezartzeko luzapena eskatu duela, ezingo baitu abenduaren 31rako ezarri. Mugikortasun zinegotziak horretarako emandako “arrazoiak” hainbat dira. Lehena, eremua finkatu behar dela eta hori orain Ingurumen zinegotziaren esku dagoela; bigarrena, Hiri Mugikortasun Jasangarri Plana egin behar dela, eta hirugarrena, Zirkulazio Ordenantza berria egin behar dela.

En este contexto, el pasado 8 de octubre se tuvo conocimiento mediante la prensa de que el Gobierno Municipal de San Sebastián ha solicitado una prórroga para la implantación de la zona da bajas emisiones, ya que ésta no podrá ser establecida para el 31 de diciembre. Los «motivos» esgrimidos por la concejala delegada de Movilidad son varios. El primero, la necesidad de demarcación de dicha zona, que ahora depende de la concejala delegada de Medio Ambiente; el segundo, la elaboración de un Plan de Movilidad Urbana Sostenible; y el tercero, la elaboración de una nueva Ordenanza de Circulación.

EH Bilduren ustez, horiek aitzakiak baino ez dira. Argi dago gai honekin berandu goazela eta orain arte Udal Gobernuak ez duela erabaki arduratsurik hartu. Hiri honek trafiko pribatua murriztu behar du eta horretarako mugikortasun eredu berri bat behar du. Eta mugikortasun eredu berri hori ezartzeko neurrietako bat Isuri Gutxiko Eremua izan daiteke.

EH Bildu considera que estas no dejan de ser meras excusas. Es evidente que vamos muy tarde en este asunto y que hasta el momento, el Gobierno Municipal no ha adoptado decisiones responsables. Esta ciudad necesita reducir el tráfico privado y para ello necesita un nuevo modelo de movilidad, y una de las medidas para implantar este nuevo modelo de movilidad puede ser la zona de bajas emisiones.

Honetaz interpelatuta, Mugikortasun zinegotziak ez zuen inongo konpromisorik hartu Isuri Gutxiko Eremua lehenbailehen zehaztu eta ezartzeko.

Interpelada a este respecto, la concejala delegada de Movilidad no adquirió ningún compromiso para la demarcación e implantación urgente de la zona de bajas emisiones.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante

duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, abenduaren 31 baino lehen Isuri Gutxiko Eremua ezartzeari buruzko neurriak zehaztu ditzala: besteak beste, eremua zein izango den, eremura sartzeko baldintzak zeintzuk izango diren, kamerak non jarriko diren, parkingetara sartzeko baldintzak zeintzuk izango diren...

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Isuri Gutxiko Eremua ezartzeko neurriak arloko eragileekin eta inguruko bizilagunekin eta udal taldeekin partekatu ditzala.

3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Isuri Gutxiko Eremua ezartzeko neurriak zeintzuk izango diren argi azal ditzala herritarren aurrean.

Donostian, 2023ko urriaren 19an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, antes del 31 de diciembre, concrete las medidas relativas a la implantación de la zona de bajas emisiones, tales como: demarcación de la zona, condiciones de acceso a la zona, ubicación de cámaras, condiciones de acceso a los parkings…

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a compartir las medidas de implantación de la zona de bajas emisiones tanto con los agentes sectoriales y con vecinas y vecinos de la zona como con los grupos municipales.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que explique ante la ciudadanía cuáles serán las medidas para la implantación de la zona de bajas emisiones.

San Sebastián, a 19 de octubre de 2023.

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Victor Jose Lasa Briz jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Olatz Yarza Garagorri andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, D. Victor José Lasa Briz, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS A FAVOR: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, "La Cumbre" eraikinaren eta lur eremuaren lagapena eta proiektuari buruzkoa.**

"Juan Carlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko uztailaren 17an Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2022ko ekainean Espainiako Gobernuak eta EH Bilduren Kongresuko taldeak, Memoriaren Legea aurrera ateratzeko negoziazioen haritik, ezaugarri finalista duen akordio bat lortu zuten, non jasotzen den Donostiako "La Cumbre" eraikina Donostiako Udalaren eskuetara pasatzea eta hura memoria historikoa berreskuratzeko erabiltzea.

Akordioan jasotzen zen Memoriaren Legea onartu eta urtebetera gauzatuta behar zela lagapena. Memoriaren Legea 2022ko urriaren 19an onartu zen; hau da, urtebete bete da dagoeneko.

Udal Gobernuaren geldotasuna ikusirik, interpelazioa aurkeztu genuen uztailean, eta 2023ko uztailaren 27ko udalbatzarrean EH Bilduk

**II.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la cesión y proyecto del edificio y terreno "La Cumbre".**

"El concejal del grupo municipal EH BILDU, Juan Carlos Izagirre Hortelano, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su consideración en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Hacienda el 17 de julio de 2023.

JUSTIFICACIÓN

En junio de 2022, el Gobierno de España y el grupo del Congreso de EH Bildu, al hilo de las negociaciones para aprobar la Ley de la Memoria, alcanzaron un acuerdo de carácter finalista, en el que se recogía que el edificio de "La Cumbre" de San Sebastián pasaría a manos del Ayuntamiento de San Sebastián y sería utilizado para la recuperación de la memoria histórica.

El acuerdo recogía que la cesión debía materializarse al año de la aprobación de la Ley de la Memoria. La Ley de la Memoria fue aprobada el 19 de octubre de 2022; es decir, ya ha transcurrido un año.

Ante la tardanza del Gobierno Municipal, en el mes de julio presentamos una interpelación y, en el debate de la moción que EH Bildu presentó

gai honi buruz aurkeztu zuen mozioaren inguruko eztabaidan, alkate jaunak esan zuen egina ziola eskaera ofiziala Espainiako Gobernuari “La Cumbre” eraikinaren lagapena gauzatu zedin.

Jakin genuen eskaera hori emailez bidalitako mezu labur bat izan zela, aipatutako udalbatzarraren bezperan igorritakoa, eta bertan alkateak eskatzen ziola Espainiako Gobernuko ordezkariari zehazteko zer urrats eman behar zituen udal honek lagapena gauzatzeko. Erantzuna izan zen eskaera Estatu Idazkaritzari helaraziko zitzaiola eta oporren ondoren hitzarmena landuko zela.

Urriaren 16an beste interpelazio bat aurkeztu genuen Ogasun Batzordean; besteak beste, orduz geroztik zer beste urrats egin diren eta lagapena sinatu den edo ez jakiteko, sinatu bada zehaztapenak ezagutzeko eta ez bada sinatu, epea behin agortuta, aukera hau ez galtzeko zer berme dugun jakiteko. Era berean, galdetu genuen zer proiektu lantzen ari zen Udal Gobernua espazio honetarako eta zeintzuekin ari den lantzen, lantzen ari bada.

Memoria Demokratikoaren Legeak jasotzen duenez, legearen berezko xedearekin bat datozen jardueretarako erabili behar da “La Cumbre” jauregia; alegia, memoria demokratikoa berreskuratu, babestu eta zabaltzeko. Horrez gain, legearen berezko xedea da arrazoi politiko edo ideologikoengatik, pentsamenduarengatik edo iritziengatik, kontzientziarengatik edo sinesmen erlijiosoengatik eta orientazio eta identitate sexualarengatik jazarpena edo indarkeria jasan zutenei aitortza egitea. Hori kontuan hartuta, EH Bilduk uste du nahikoa

sobre este tema en la sesión plenaria del 27 de julio de 2023, el Sr. Alcalde manifestó que había solicitado oficialmente al Gobierno español que se materializara la cesión del edificio de "La Cumbre".

Supimos que dicha solicitud consistió en un breve correo electrónico enviado el día anterior a la celebración de la citada sesión plenaria, en el que el alcalde solicitaba al representante del Gobierno español que concretara los pasos a seguir por este Ayuntamiento para materializar la cesión. La respuesta fue que la solicitud se trasladaría a la Secretaría de Estado y que, después de las vacaciones, se ocuparían del acuerdo.

El 16 de octubre presentamos una nueva interpelación en la Comisión de Hacienda para conocer, entre otros, los pasos que se han dado desde entonces, y si se había firmado o no la cesión. En el caso de que se hubiera firmado, queríamos conocer los términos acordados y, si no estuviera firmada, queríamos saber qué garantías tenemos para no perder esta posibilidad, una vez agotado el plazo. También preguntamos qué proyecto estaba elaborando el Gobierno Municipal para este espacio y con quiénes lo estaba elaborando, si es que lo está haciendo.

La Ley de la Memoria Democrática establece que el palacio de "La Cumbre" debe ser utilizado para actividades acordes con el objeto propio de la Ley, esto es, la recuperación, protección y difusión de la memoria democrática. Además, es objeto propio de la ley reconocer a quienes sufrieron acoso o violencia por razones políticas o ideológicas, de pensamiento u opinión, de conciencia o convicciones religiosas y de orientación o identidad sexual. Por ello, EH Bildu considera que hay razones suficientes para que el palacio de "La Cumbre" se convierta en un

arrazoi dagoela “La Cumbre” jauregia estatu indarkeria jasan zuten biktimak aitortu eta haien mina erreparatzeko gune bilakatzeko.

Udal Gobernuak batzordean emandako arrazoiak ez zitzaizkigun egokiak iruditu, dirudienez ez baita beste urratsik egin. Horrek agerian uzten duen utzikeria eta interes faltak kezkatzen gaitu, proiektuari buruz inolako azalpenik ez emateak ere kezkatzen gaituen bezala. Kontuan izan behar dugu jarritako epea agortu dela, eta lagapena arriskuan ere egon daitekeela.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari “La Cumbre” eraikinaren eta lur eremuaren lagapena gauzatzeko egin beharreko lanak egin ditzala luze gabe, urte bukaerarako lagapena sinatuta egon dadin.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkeztu dezala, urtea bukatu aurretik, gune honen kudeaketaren inguruko proposamen bat: zer beste instituzio eta eragilerekin egin nahi duen, zer lan formula proposatzen diren, zer kudeaketa mota eta abar.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari proiektua lantzeko eta gunea kudeatzeko unean memoria historikoa lantzen duten eragile sozialekin elkarlana sustatzea eta haiekin adostea.

Donostian, 2023ko urriaren 19an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea”.

lugar de reconocimiento y reparación del dolor de las víctimas de la violencia de Estado.

Las razones esgrimidas por el Gobierno municipal en la Comisión no nos parecieron adecuadas, ya que, al parecer, no se han dado más pasos. Nos preocupa la dejadez y la falta de interés que este hecho pone de manifiesto, como también nos preocupa que no se dé ninguna explicación sobre el proyecto. Hay que tener en cuenta que se ha agotado el plazo establecido, y que la cesión puede estar en riesgo.

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que lleve a cabo, sin dilación, los trabajos necesarios para hacer efectiva la cesión del edificio de “La Cumbre" y del terreno circundante, para que la cesión esté firmada para finales de año.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a presentar, antes de fin de año, una propuesta sobre la gestión de este espacio: con qué otras instituciones y agentes quiere gestionarlo, qué fórmulas de trabajo se proponen, qué tipo de gestión, etc.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, a la hora de elaborar el proyecto y gestionar el espacio, promueva la colaboración y el acuerdo con los agentes sociales que se ocupan de la memoria histórica.

San Sebastián, 19 de octubre de 2023

Juan Karlos Izagirre Hortelano,
portavoz del grupo municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, D.ª Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – PP, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 1 – PP, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, joko patologikoari buruzko informazioa lortzeko eta joko patologikoa detektatu eta prebenitzeko jarraibideak direla eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko urriaren 16an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2022an Eusko Jaurlaritzak 2016. urteko Jokoaren Erregelamendu Orokorra aldatzeko urratsak

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las pautas para obtener información sobre el juego patológico y para detectarlo y prevenirlo.**

“Olaia Duarte López, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente moción, para su tratamiento en Pleno, consecuencia de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Servicios de las Personas celebrada el 16 de octubre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

En 2022, el Gobierno Vasco inició el procedimiento para modificar el Reglamento

abiatu zituen, besteak beste, joko lokalen eta ikastetxeen arteko distantzia murrizteko. Hain zuzen ere, otsailean onartu zen 19/2022 DEKRETUAn, zeinaren bidez aldatzen den Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duena. Horren arabera, joko-aretoen kopuruari muga jarri zaio: EAEn hiru kasino baino ezin izango dira egon -lurralde historikoko bat-, hipodromo bat, 14 bingo, 60 apustu-lokal eta 170 joko-areto. Era berean, ezingo da joko edo apustu aretorik egon ikastetxe arautuetatik 150 metro baino gutxiagoko eremuan, eta establezimenduen artean gutxienez 500 metroko distantzia egongo da.

General del Juego de 2016, con el fin de, entre otros, reducir la distancia entre los locales de juego y los centros escolares. Concretamente, en febrero se aprobó el DECRETO 19/2022, de modificación del Reglamento General del Juego en la Comunidad Autónoma de Euskadi, mediante el que se establece una limitación al número de salones de juego: En la CAPV sólo podrán existir tres casinos –uno por cada territorio histórico–, un hipódromo, 14 bingos, 60 locales de apuestas y 170 salones de juego. Asimismo, no podrán existir salas de juego o de apuestas en un radio inferior a 150 metros desde los centros educativos reglados, y la distancia mínima entre establecimientos de este tipo será de 500 metros.

Donostiaren kasuan, 2021ean hiriko apustu etxeen inguruko ikerketa bat egin zuen Haritik Hirira geografo taldeak. Hedabideetan zabaldu zituzten emaitzen arabera, apustu makinak dituzten 101 lokal (joko aretoak eta ostalaritzako lokalak) zeuden Donostian. Azterketan nabarmendu zutenez, haien kokapena ez da homogeneoa, eta errenta baxueneko auzoetan apustu etxeen metaketa handia dago. Ikerketaren arabera, langabezia maila apalena duten lau auzoetan (Miramon-Zorroaga, Antigua, Ibaeta eta Aiete / 41.173 bizt.) kiroletako 14 apustu makina zeuden. Bestalde, langabezia maila handiena duten lau auzoetan (Loiola, Intxaurrondo, Altza eta Martutene / 43.704 bizt.) 27 apustu makina. Datu horien inguruko irakurketa ere egin zuen Haritik Hirira taldeak: “Datuek argi uzten dute apustu makinen lokalizazio estrategikoak langileen egoera prekarioa eta horrek sortzen duen desesperazioa kapitalizatzeko helburua duela”.

En el caso de San Sebastián, en 2021 el equipo de geógrafos Haritik Hirira realizó un estudio sobre las casas de apuestas en la ciudad. Según los resultados publicados en los medios de comunicación, en San Sebastián había 101 locales (salones de juego y locales de hostelería) con máquinas de apuestas. El estudio destacó que su ubicación no es homogénea y que en los barrios de renta más baja existe una importante concentración de casas de apuestas. Asimismo, según el estudio, los cuatro barrios con menor nivel de desempleo (Miramón-Zorroaga, Antiguo, Ibaeta y Aiete / 41.173 hab.) contaban con 14 máquinas de apuestas deportivas. Por el contrario, en los cuatro barrios con mayor nivel de desempleo (Loiola, Intxaurrondo, Altza y Martutene / 43.704 hab.) había 27 máquinas de apuestas. Así, en base a los citados datos, el grupo Haritik Hirira hizo la siguiente lectura: «Los datos ponen de manifiesto que la localización estratégica de las máquinas de apuestas tiene como objetivo capitalizar la precaria situación de las personas trabajadoras y su consiguiente desesperación».

Iraileko udal batzordeetan gaiaren inguruan

Sin embargo, cuando preguntamos por el tema

galdetu genuenean, ordea, Udalak dituen datuen arabera, 50 apustu etxe daude hirian, Haritik Hirira egindako maparekin alderatuta diferentzia nabarmenarekin.

en las comisiones municipales de septiembre, se nos dijo que, según los datos de que dispone el Ayuntamiento, hay 50 casas de apuestas en la ciudad, lo que representa una diferencia significativa respecto al mapa realizado por Haritik Hirira.

Kontuan izanda Haritik Hirira egindako azterketaren ondoren onartu zela dekretu berria, beharrezkoa iruditzen zaigu hirian dauden joko lokalen mapa bat izatea lokal horien eragin eremuan hezkuntza zentrorik dagoen jakiteko, eta haien artean zer distantzia dagoen zehazteko eta, oro har, dekretu berrian jasotakoa betetzen ari den edo ez aztertzeko.

Teniendo en cuenta que el nuevo decreto fue aprobado tras el análisis realizado por Haritik Hirira, consideramos necesario disponer de un mapa de los locales de juego existentes en la ciudad, con el fin de conocer la existencia de centros educativos en la zona de influencia de dichos locales y determinar la distancia existente entre ellos y, en general, analizar si se está cumpliendo o no con lo establecido en el nuevo decreto.

Urriko batzordeetan honen inguruan delegatua interpelatua, adierazi du ez duela beharrezkoa ikusten hiriko apustu etxeen egungo egoera ezagutzea eta 2023-2027ko Adikzioak Prebenitzeko Tokiko Plana egokia dela bere horretan.

Interpelada sobre ello en las comisiones de octubre, la delegada manifiesta que no ve necesario conocer la ubicación actual de las casas de apuestas en la ciudad, y que el Plan Local de Prevención de las Adicciones 2023-2027 es adecuado tal como está redactado.

Ezin dugu ulertu nola diseinatu daitekeen prebentzio plan egoki bat, auzoz auzo diagnostikoa zein den jakin gabe eta errealitate bakoitzera egokitzen den esku-hartzea diseinatu gabe.

No podemos entender cómo se puede diseñar un plan de prevención adecuado, sin conocer el diagnóstico de cada barrio y sin diseñar una intervención que se ajuste a cada realidad.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko joko lokalen eta apustu etxeen mapa eguneratua egin dezala, arriskua goiz detektatzeko eta prebenitzeko neurriak egungo errealitatera egokitu daitezen.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a elaborar un mapa actualizado de los locales de juego y de las casas de apuestas de la ciudad, a fin de que las medidas de detección precoz y prevención del riesgo se adapten a la realidad actual.

Donostian, 2023ko urriaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Donostian, 2023ko urriaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Olaia Duarte López, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU eta Elkarrekin Donostia taldeek aurkeztua, suhiltzaileei buruz.**

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Jabier Vitoria Romak eta Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta udal suhiltzaileek salatutako prekarietate egoeraren gaineko KONTROL MOZIO hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran aztertzeko. Mozioa 2023ko irailaren 18an Zerbitzu Orokorren Batzordean egindako interpelazioen ondorioa da.

**II.2.4. Moción de control, presentada por los grupos EH BILDU y ELKARREKIN DONOSTIA, sobre bomberos.**

"Jabier Vitoria Roma, concejal del grupo municipal de EH Bildu, y Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para ser tratada en Pleno, sobre la situación de precariedad denunciada por los bomberos municipales. La moción es consecuencia de sendas interpelaciones sustanciadaa en la

Comisión de Servicios Geenerales el pasado 18 de septiembre de 2023.

JUSTIFIKAZIOA

Udal suhiltzaileek protesta eta salaketa ekintza batzuk egin dituzte daukaten egoera prekarioa agerian uzteko (giza baliabide eta baliabide material gabezia, antolamendu-gabeziak...), eta larrialdiei, suteei, erreskateei, salbamenduari, uholdeei eta beste gertakari batzuei erantzuteko funtsezko zerbitzua denez, herritarrak egoera horien aurrean artatzeko eta babesteko, beharrezkoa da Udalak eta, bereziki, Udal Gobernuak berehala ekitea arazo horiek guztiak konpontzeari.

Hala, iraileko Zerbitzu Orokorren Batzordean EH Bilduk eta Elkarrekin Donostiak horren gainean galdetuta, ez ziguten behar adinako erantzunik eman, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera batzuk egin behar zituztela besterik ez ziguten esan, deus ere ez zerbitzua berritzeko, hobetzeko eta egungo eta etorkizuneko premietara egokitzeko hain beharrezkoa den plangintzaren eskaeraz.

Urrian egindako agerraldian plangintza egiteko zailtasuna azpimarratu zuten.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak dakarren KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio hiru hilabete baino lehen legealdi honetako Plan Estrategikoa egiteko suteen prebentzio eta itzaltze eta salbamendu zerbitzuarentzat, han egin behar diren jarduerak eta inbertsioak planifikatzeko.

2.- Plan horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu, xehe-xehe eta urgente:

JUSTIFICACIÓN

Ante las acciones de protesta y denuncia por parte de los bomberos municipales para hacer visible la precaria situación en que se encuentran: falta de medios humanos y materiales, deficiencias organizativas… y toda vez que es un servicio esencial para atender emergencias, incendios, rescates, salvamento, inundaciones y otras con el fin de atender y proteger a la ciudadanía ante dichas situaciones es necesario que el Ayuntamiento, y en especial el gobierno municipal, aborde con urgencia la resolución de todos esos problemas.

Interpelado al respecto el delegado en la Comisión de Servicios Generales de septiembre por EH Bildu y Elkarrekin Donostia, no respondió suficientemente a las preguntas solicitadas, manifestando que se dejaba pendiente de unas reuniones con la Diputación Foral de Gipuzkoa pero sin responder a la demanda de planificación tan necesaria para adecuar, renovar y mejorar el servicio a las necesidades actuales y futuras.

En comparecencia en octubre insistió en la dificultad de planificar.

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que elabore un Plan Estratégico para esta legislatura para el SPEIS, a realizar como máximo en tres meses, que planifique las actuaciones e inversiones necesarias.

2.- Dicho plan debe incluir, como mínimo, de forma detallada y urgente:

• Plantilla handitzea, zerbitzua ematen dion biztanle kopuruari eta lurraldeari behar bezala erantzun ahal izateko eta zerbitzua seguru egin ahal izateko adina.

• Urte anitzeko inbertsio plana, diren inbertsio premiak bilduko dituena; besteak beste, ibilgailuen flota eguneratzea eta Garbera parkeko instalazioak egokiak eta behar diren baldintzetan izatea (eraikinak, bulegoak, ikasgelak...).

• Segurtasunean inbertitzea; hala nola, prestakuntza jarraitu eta eguneratua, behar adinako babes-ekipoak, eta abar.

Donostia, 2023ko urriaren 19a

Jabier Vitoria Roma
EH Bilduko zinegotzia

Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostiako zinegotzia”.

• Un aumento de plantilla suficiente para poder dar una respuesta adecuada a la población y superficie a la que se da cobertura y realizar este servicio con seguridad.

• Un Plan de Inversiones plurianual que recoja las diferentes necesidades de inversión, entre otras, la actualización de la flota de vehículos, y unas instalaciones en el parque de Garbera adecuadas y en condiciones (edificios, oficinas, aulas...).

• Inversión en seguridad, mediante una formación contínua y actualizada, Equipos de Protección suficientes, etc.

Donostia, a 19 de octubre de 2023

Jabier Vitoria Roma
Concejal de EH Bildu

Arantza González García
Concejala de Elkarrekin Donostia”.

Eztabaida hasita, Jabier Vitoria Roma jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jabier Vitoria Roma, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 291/2019 epaia, Belartzako gainean legez kanpo utzitako lurrak kentzeari buruzkoa, ez betetzeko arrazoiei buruz.**

“EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu dio Udalbatzari, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Belartzan legez kanpo botatako lurrak kentzeaz emandako 291/2019 epaia ez betetzeko arrazoiak direla eta. Kontrol mozio hau hilaren 16an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los motivos por los que sigue sin cumplirse la sentencia 291/2019 del TSJPV referida a la retirada de tierras depositadas ilegalmente en el Alto de Belartza.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su debate en Pleno, sobre los motivos por los que sigue sin cumplirse la sentencia 291/2019 del TSJPV referida a la retirada de tierras depositadas ilegalmente en el Alto de Belartza. La moción de control es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión

interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalbatzak, 2020ko ekainaren 25ean egindako bileran, aho batez onartu zuen EH Bildu eta Elkarrekin Donostia udal taldeek modu bateratuan aurkeztutako kontrol mozioa. Hau zioen mozioak: «Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, kontuan hartuta behin eta berriz ez direla bete Udalak lurrak kentzeko eta eremua lehengo egoerara itzultzeko emandako aginduak, eta EAEANren 291/2019 Epaia aintzat hartuta, luzamendurik gabe erabaki dezala, legez egin beharreko izapideak egin ondoren, betearazpen subsidiarioko prozedura hastea, eremua lehengo egoerara itzultzeko».

Udalbatzak aipatutako kontrol mozioa onartu bazuen ere, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi eskuordeak erreparoak zituenez botatako lur haiek handik kendu eta lursaila lehen zen bezala uzteko prozesuari ekiteko, EAEANren 291/2019 Epaia nahitaez betearazteko eskatu behar izan zuen Haritzalde Naturzaleen Elkarteak.

Hala, Auzitegiak, Haritzaldek hala eskatuta, Udalari agindu zion Belartzako lur haiek kentzeko hasitako prozeduraren egoeraren berri eman ziezaiola hiru hilean behin, gutxienez.

Alde horretatik, 2022ko apirilaren 20an, eskatutako plano topografikoak aurkeztu zituen enpresa adjudikaziodunak, eta 1. unitateko

de Desarrollo y Planificación del Territorio del pasado 16 de octubre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia celebrado el 25 de junio de 2020 aprobó por unanimidad una moción de control conjunta presentada por los grupos municipales de EH Bildu y Elkarrekin Donostia en la que se decía lo siguiente: “El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, ante el incumplimiento reiterado de las órdenes emanadas desde el Ayuntamiento para la retirada de tierras y la restitución del ámbito a su estado anterior, así como del contenido de la sentencia 291/2019 del TSJPV, acuerde sin dilaciones, previa la tramitación legal correspondiente, el procedimiento de ejecución subsidiaria correspondiente, con restitución de la zona a su estado anterior”.

